

HIRUREN ARTEAN

Iñurrietaren pinturak, Herreruelaren poemak eta Aldunateren eskulturak

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Gasteizko ZAS Espazioan Santos Iñurrietaren «Kajika's»

erakusketa dago ikusgai azaroaren 12ra arte. Noizbehinka tailerrean egiten dituen lantxoak dira, «lasaitasun jolas gisa», garrantzi handiagorik eman gabe. Jendeak estudioan ikusten dituenean barre egiten duela dio. Kutxatxo horiek egunero gertatzen denak sortzen duen umore txarra kentzeko terapia direla dio barrez, «beso bat edo buru bat moztu eta ondo geratzen zara». «Koadro serioak esaten zaien horiekin lanean nenbilen eta tarteka panpinatxo horiek egiten hasi nintzen, beti ere ideia bat buruan: kritika soziala, *couché*-a, gizarte arrosa honen ereltasuna salatzea. Beste sail bat da, grabatu batzuk egiten dituzunean bezala».

Kale bereko beste areto batean, Zuloa Irudi espazioan, berriz, hiru diziplina biltzen dituen «Suite Menut» erakusketa zabaldu zuen Iñurrietak joan den astean, eta azaroaren 24ra bitartean egongo da ikusgai. Paper gaineko teknika mistoko 17 marrazkik beste hainbat lani bide eman diete: 14 mihise, 17 poema, 3 serigrafia eta 15 eskulturari, hain zuzen.

HERRERUELA ETA ALDUNATE

Zuloako erakusketa duela hiru urte zeukan prest, baina beste bat tartekatu zitzaion Artium museoan. Zalantzan egon zen, Artiumekoa eta Zuloakoa aldi berean egin edo ez, eta bigarre-na atzeratzea erabaki zuen. Orduan Benito Herreruela gazte-gaztetatik Gasteizen bizi den poetarekin hitz egin zuen, erakusketarako prest zituen marrazkien gaineko poema batzuk

Bi erakusketa inauguratu ditu Santos Iñurrieta pintore gasteiztarak. ZAS Kultur Espazioan, «Kajika's», umore txarra kentzeko terapia gisa. Zuloa espazioan, berriz, «Suite Menut»: hamaika istorio kontatzen dituzten koadroak, Benito Herreruelak horien gainean egindako poemak eta Patxi Aldunateren eskulturak, margolanetatik irten diren pertsonaia xelebreak, alegia.

egitea proposatzeko. Baietz esan zion Herreruelak, eta erakusketa koadroek eta poemek osatuko zutela erabaki zuten.

Artiumeko erakusketa zabaldu zuenean, Patxi Aldunate eskultore iruindarra hura ikustera joan zen. Aspaldi pentsatuta zeukaten elkarrekin zerbait


egin behar zutela, eta Aldunatek esan zion bazuela hiru dimentsioko gauzak egiteko makina bat, ea ardura zitzaion bere marrazkiak hartuta figuren bat egitea. Egin zezala esan zion Iñurrietak, pozik gainera. Aldunatek egin zituen figura batzuen argazkiak pintore gas-

teiztarrari bidali zizkion, hari ikaragarri gustatu eta, «Patxik animalia batek bezala lan egiten duenez», koadro erakusketa hura trilogia moduko bat bihurtu zen, margolanek, poemek eta eskulturek osatua.

Benito Herreruela poeta da, «ezin duelako saihestu», Iñurrietaren ustez. Artiumeko erakusketarako argitaratu zuten katalogoak Francisco Javier San Martinen eta Herreruelaren testuak ditu. Hura izan zen Iñurrietaren lanei hitzezko adierazpide poetikoa emateko lehen harremana. Erakusketa honetarako 17 poema egin ditu, 17 koadrotan agertzen diren istorioen kontaketa poetikoa. Zuloan, Herreruelaren poemen prozesua jasotzen duen koaderno bat dago ikusgai, poemen bertsio edota aldaketak

Patxi Aldunate, Santos Iñurrieta eta Benito Herreruela, Zuloa espazioan.
Endika PORTILLO | FOKU






erakusten dituen eskuizkribua. Koadroen argazkiak jaso zitue-
nean, lehenik inprobisazioak
eta arreta eman zioten ele-
mentuen deskripzioak egin zi-
tuen. «Iñurrietaren koadroak
oso narratiboak dira, egoerak
erakusten dituzte, eta ez da
zaila haien gaineko testu poeti-
koa egitea», dio.

Patxi Aldunatek orain dela ur-
te asko ezagutu zuen Iñurrieta,
Arte Ederrak ikasi zituen ga-
raian. Haren lan batzuk ikusi
eta Gasteizko kaleak ezagutu zi-
tuen harekin. Iñurrietaren obra-
ren oso zalea dela dio, batez ere
haren «kolorearen erabilera» du
gogoko. Guztiz erakartzen dute
haren lanen «itxurazko errazta-
sunak» eta kontatzeko trebeta-
sunak; horregatik uste osoa
zuen pertsonaia xelebre horiek
dauden testuingurutik aterat-
zen saiatu behar zutela, «errea-
litatera ekarri», ea nola funtzio-
natzen zuten.

ABIAPUNTU BAT?

Figura horiek guztiak eskanea-
tuta dauzkate hiru dimentsio-
tan eta nahi dituzten neurrian

«Horixe izan behar du
poema batek, begi
batzuen oihua». Benito
Herreruelaren poema
baten zirriborroa.
Eskuinean, Patxi
Aldunateren hiru
eskultura, Iñurrietaren
koadro baten ondoan.
GAURB - Endika PORTILLO |
FOKU



erreproduzitu ditzakete. Jato-
rrizko ideia pertsonaiak eskala
errealean egitea zen, erakuske-
tan beren buruaren bisitari
izan zitezen, hura ikustera doa-
nari lagun egin diezaioten.

Lankidetzaren horrek zerbait za-
baldu duela diote, zerbait
gehiago egiteko gogoa baitute.
Oraindik ez dakite pieza han-
diagoak, txikiagoak, kolorezta-
tuko dituzten... Aurrera begira,
aukera bat da; oraingoz, erron-
ka koadroetatik pieza horiek
ateratzea zen, eta emaitza, «era-
kusketa ikusita», oso pozik ego-
teko modukoa omen da.

Prozesuak berez egin duela
aurrera dio. Herreruelari argaz-
kiak bidali eta hura lanean hasi

zen. Hortik aurrera, Iñurrietak
ez zuen ezertan ere esku hartu,
eta Aldunatek figurak egin aha-
la bidaltzen zizkion eta berak,
emaitzak ikusita, «bikain» bai-
no ez zuen esaten. Lankidetzaren
erraza izan dela dio gasteizta-
rrak. «Egoetatik libre zaudene-
an, asmo handirik gabe eta in-
posiziorik gabe, errazagoa da».

Erakusketaren protagonista
Menut da, Iñurrietaren txaku-
rra. «Etxeko txakurtzua da, oso
zaharra, 14 edo 15 urtekoa. Beti
egon da hor, pintatzen nuene-
an nire oinetan esertzen zen
eta egiten nuen guztia oso on-
do zegoela esaten zidan. ‘Me-
nut, zer iruditzen zaizu hau?’,
esaten nion, eta bera buztanari

eragiten hasten zen. Ados, be-
raz. Etxetik pasatzen den jende
guztiak gogoko du, instituzio
bat da». Belgikako galeriakoe-
k suite bat edo galeristaren en-
kargua egitea proposatu ziote-
nean, berak suite hori Menut
izendatzea proposatu zuen.

Erakusketako koadroetatik
hiru serigrafia atera ditu. Alde
komertzial bat dutela dio, baina
serigrafia oso gustuko duelako
egin dituela dio. Saltzeko as-
moz ere egin ditu, baina batez
ere jendearentzat eskuragarria-
go izan daitezen.

Artiumeko erakusketa pres-
tatzen egon zen tarte horretan
marrazkiak olio ere egin zi-
tuen. Erakusketarako argitaratu
duten katalogoan ikusgai dau-
de. Eta orain askoz tamaina
handiagoan egiten ari da. «Al-
datu egiten dira, koloreak eta».

Zuloa liburu-dendari eske-
rrak eman nahi dizkio Iñurrie-
tak; «Gasteizen ez zegoen ezer,
eta sekulako lana egin du», eta
pozgarria dela dio mugitzen
den eta gogoz dabilen jende
gaztea ikustea. «ZAS aire fres-
koa da».

Zuloa espazioan, Herreruelaren poemen
prozesua jasotzen duen koaderno bat dago
ikusgai, poemen bertsio edota aldaketak
erakusten dituen eskuizkribua

Aldunatek uste osoa zuen Iñurrietaren
pertsonaia xelebre horiek dauden
testuingurutik ateratzen saiatu behar zutela,
«errealitatera ekarri»